

BI MILA ETA HOGEIKO MAIATZAREN SEIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2020ko maiatzaren seian, 19:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Aitor Agirre Urkidi alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Itxaso Otazua Etxebarria
Jesús María Gondra Zubieta
Ander Etxebarria Olalde
Gartzen Agirregoitia Abad
Ana González Gil
Theo Norbert Bodo Reichenberger

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HOGEIKO MARTXOAREN LAU ETA BEDERATZIAN EGINDAKO BILKUREN AKTEN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2020ko martxoaren lau eta bederatzian egindako akten zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, hauek onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

- Txiki ederren kontratua txakurrak batzeko.
- Fakturen onarpena.
- 2019ko Aurrekontuaren likidazioaren onarpena.
- Antonio Rios Gendirek aurkeztutako ur hartunearen eskaera.
- Iñaki Etxebarria Alegriak aurkeztutako fiantzaren eskaera.
- Iker Villasana Hernaezek aurkeztutako obra lizentzia eskaera.
- Xabier Vadillo Landalucek aurkeztutako obra lizentzia eskaera..
- COVID-19 dala eta jarduketan Dekretua.
- Fakturen onarpena.
- Andoni Vecchio Garciak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.
- Fakturen onarpena.
- Juan Carlos Duran Riolek aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

III.- HORNIDURARAKO ARRIETA-2 PUTZUKO URA APROBETXATZEKO EMAKIDA BERRITZEKO ESKAERA.

Udalbatzak, aho batez, Arrietako Udalari Arrieta-2 putzua ur-hornidurarako aprobetxatzeko emandako emakida berritzeko eskatu dio Ura Ur Agentziari.

IV.- COVID 19REKIN ETA ALARMA EGOERAREKIN LOTUTA ADOSTU BEHARREKO NEURRIAK.

Alkate jaunak COVID 19 eta alarma egoeraren inguruan har daitezkeen neurrien berri eman du, besteak beste, TMI gaineko zergaren kobrantza atzeratzea eta uraren, zaborraren eta estolderiaren tarifak atzeratzea.

Gartzen Agirregoitiak Herriko Tabernari eta "Uriena" sozietatearen alokairua alarma egoeran dagoen bitartean ez kobratzeko aukerari buruz galdetu du.

Alkate jaunak egoera honetan erabili ezin izan diren lokalen kuoten salbuespena egingo dela adierazi du herriko taberna eta Uriena txokoa aipatuz. Era berean, jakinarazi du udal diru-sarrerak nabarmen murriztuko direla eta benetako egoera ezagutu ahala eman daitezkeen diru laguntzak aztertzen ari dela.

V.- 2020ko AURREKONTUAREN 1 KREDITUEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA.

Arrietako Udalaren 2020ko Aurrekontuari eragiten dion 1 zenbakiko kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko espedientea irakurri da.

"Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da, eta berak espediente hori bat datorrela aplikatu beharreko araudiarekin adierazi du zehazki, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritako betekizunekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko txostena eta onartzeko proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Udalaren aurrekontuari dagokion proposamenean aipatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentziaren bidez kredituak aldatzeko espedientea onartzea, kapituluaren arabera.

KREDITUEN TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA Transferitzen diren kredituak dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxitzea	Ondoriozko kreditua
1531.601.01	Hilerreirako sarbidea	15.000,00 €	15.000,00 €	0,00 €

	GUZTIRA ...	15.000,00 €	15.000,00 €	0,00 €

Kredituak handitzen zaizkien gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehitzeta	Ondoriozko kreditua
161.623.02	Kontadoreak jartzea ur deposituetan	20.000,00 €	15.000,00 €	35.000,00 €
	GUZTIRA ...	20.000,00 €	15.000,00 €	35.000,00 €

Bigarrena.- Egintza hori irmoa eta betearazlea denez eta geroko izapiderik egin behar ez denez, bidezkoa da Funtsen Kontu hartzailetzako Zerbitzuek kontabilitatean jasotzea onartutako kreditu-aldaketa, berehalako ondorioekin.

VI.- 2020KO AURREKONTUKO 2. KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA ETA IRAUNKORTASUN TXOSTENA ONARTZEA.

Kredituak aldatzeko espedientea irakurri da, Udalaren aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da, eta berak , espediente hori bat datorrela aplikatu beharreko araudiarekin adierazi du, zehazki, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Udalaren aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidezko kredituen aldaketa-espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta kapituluka laburpen honen arabera:

KREDITUEN GEHIKUNTZA

Kapituluak	Izena	Gehiketak
6	Inbertsio errealak	36.887,67 €
GUZTIRA GEHIKETAK ...		36.887,67 €

FINANTZATZEN DITUZTEN ERREKURTSOAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	Diruzaintzako gerakina	24.013,92 €
6	Diru sarrera berri eta handiagoak	12.873,75 €
GUZTIRA		36.887,67 €

Bigarrena.- Egintza hori irmoa eta betearazlea da, eta ez da geroko izapiderik egin behar, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34.3 b artikulua araberak. Beraz, bidezkoa da Funtsen Kontu-hartzaitzako zerbitzuek kontabilitatean jasotzea onartutako kreditu-aldaketa, berehalako ondorioekin.

Hirugarrena.- Iraunkortasun Txostena onartzea

VII.- 2020KO AURREKONTUKO 3 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA.

Atalak	Sarrera mota	Zenbatekoa
a)	Pertsona fisiko edo juridikoen ekarpen edo ekarpen konpromiso irmoak, tokierakundearekin batera gastu jakin batzuk finantzatzeko.	8.447,80 €
GUZTIRA ...		8.447,80 €

Aipatutako sarrerek eta horien zenbatekoa honako dokumentu hauetan oinarrituta daude:

Mapfrek 0791270018685 polizaren, Z93152461 espedientearen eta Z96955351 espedientearen arabera hartutako ebazpenaren bidez

Espedienteari horietako bakoitzaren kopia erantsi zaio, eta, beraz, egiaztatuta geratu dira diru-sarrerak kobratzeko faseak, Aipatutako Foru Arauaren 38.1 eta 45.1 artikulua, gaitutako aurrekontu-kredituaren gehieneko zenbatekoa justifikatuta.

VIII.-TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN 2020KO EKITALDIKO ERROLDA ONARTZEA.

2020ko ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Errolda ikusita, hogeita hiru mila zazpirehun eta hamazazpi eta hirurogeita hamasei eurokoa (33.717,76) da. Udalbatzak, aho batez, haren onarpena eta dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea xedatzen du, eta ordaintzeko borondatezko epea 2020ko irailaren 1etik azaroaren 30era bitartekoa dela ezartzen du.

IX.- NORBERAK LEKARKEENA.

COVID 19k sortutako egoerari buruz eta pandemia kontrolatzeko hartutako neurriei buruz eztabaidatu da.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura zortziretan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko